BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3517

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, kultura-industrien berrikuntza teknologikorako eta kultura-eduki berriak euskarri berrietan sortzeko eta ekoizteko Kultura 2.0 programari diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordearen kideen izendapena argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 25eko Agindua, kultura-industrien berrikuntza teknologikorako eta kultura-eduki berriak euskarri berrietan sortzeko eta ekoizteko Kultura 2.0 programari diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

Kontuan izanda agindu horren 7. artikuluak Balorazio Batzordeen osaera Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez EHAAn argitara emango dela jasotzen duela,

Honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Balorazio Batzordearen osaera argitaratzea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:

Mikel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak: Informazio eta komunikazio teknologietan adituak diren 2 pertsona.

Mikel Madina Ugartemendia jauna

Jose María Barandiaran Galdós jauna

Batzordekideak: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako bi teknikari.

Lourdes Aranguren Sudupe andrea

Izaskun Azcarate Vergara andrea

Idazkaria:

Itziar Redondo Domínguez, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.- Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.